




Panel fotovoltaikoak

¡Aurreztu
argindarraren
fakturan!



Elementu
komunetan nahiz
partikularretan
erabil daiteke
sortutako energia



Panel fotovoltaikoak

2

AURKIBIDEA

ZER DEN ETA NOLA FUNTZIONATZEN DUEN	3
FUNTZIONAMENDU-ESKEMA	4
INSTALAZIOA	5
ONURAK	6
BESTE DATU BATZUK	6
NOLA AUKERATU PANELAK	7
INBERTSIOA / DIRULAGUNTZAK	8



Panel fotovoltaikoak

3

ZER DEN ETA NOLA FUNTZIONATZEN DUEN




- Energia fotovoltaikoa eguzki-panelen bidez **zuzenean eguzkitik lortzen den energia elektrikoa** da.
- Panel fotovoltaikoek elektrizitatea sortzen dute egunean zehar, eta berehala kontsumitu daiteke, edo bateriatan gorde nahiz konpainia elektrikoari saldu.
- Kontsumitu gabeko **energia saldu egin daiteke**, erosketa-prezioaren heren batean, gutxi gorabehera.
- Sortutako **energia banatu egin daiteke**. Autokontsumoari buruzko legeak arautzen du zer-nolako ekarpena egin behar duen sortutako energiak elementu komunetan eta elementu pribatiboetan.
- Energia bi kontagailuren bidez neurtzen da: bata sortutako energiarentzat da, eta bestea kontsumitutako energiarentzat.
- Sortutako eta kontsumitu gabeko **energia bateriatan gorde daiteke**.
- Autokontsumo kolektiboa izanez gero, sorkuntza-instalazio berari lotuta dauden kontsumitzaile/parte-hartzaile guztiek autokontsumo-modalitate berekoak izan beharko dute, eta banaketa-irizpideei buruzko akordio bera jakinarazi beharko diote banaka enpresa banatzaileari, zuzenean edo enpresa merkatutzatzailearen bidez, harena baita irakurketak egiteko ardura.



Panel fotovoltaikoak

FUNTZIONAMENDU-ESKEMA






Panel fotovoltaikoak

5

INSTALAZIOA



- Oro har, panelak eraikinaren teilatuan/zabaltzan instalatzen dira, eta **orientazioa eta itzalak garrantzitsuak dira**. Aholkularitza profesionala izatea gomendatzen da beti.
- Sistemaren osagaiak txikiak dira, eta **ez dute instalatzeko gela espezifikorik behar**.
- Oro har, ez da obrarik egin behar.
- Baimendutako **enpresa espezializatuek egingo dute instalazioa**, eta instalazioa 10 kw-tik gorakoa denean bakarrik izango da beharrezkoa proiektu bat.
- Oro har, instalazioak **obra txikietarako lizentzia** behar du, eta, kasu batzuetan, instalazioaren jardueraren aurrekomunikazioa beharko da (informazio gehiago izateko, kontsultatu EEE/EVE). Energiaz hornitzen duen konpainiari jakinarazi behar zaio instalazioaren berri.
- Eraikin babestuetan, haien babes-mailaren arabera instalatu ahal izango dira, eta ez dago baimenduta udal-araudiak antolamendutik kanpo definitutako eraikinetan instalatzea.





Panel fotovoltaikoak

6

ONURAK



Instalazio erraza



Zero hondakin



Zero zarata



Eragile klimatikoetara
erresistente



Aurrezpena argindarraren
fakturari



Energia metagarria



Urte guztian erabilgarria

BESTE DATU BATZUK



Maintentze lanak
urtean behin
enpresa espezializatu
batega

40
urte

Bizitza erabilgarria:
behin epe hori igarota,
instalazio osoa aldatu
beharko da



Panel hibridoak
erabiltzeko aukera:
fotovoltaikoa + termikoa

1/3

Bizilagunen onespena:
nahikoa da bizilagunen 1/3-ek
onartzea



Panel fotovoltaikoak

7

NOLA AUKERATU PANELAK



Panel-motak




1

Silizio monokristalinozko panelak:
Efizientzia handiagoa baldintza estandarretan.

Erreparatu, halaber, alderdi hauei:

- **Sistemaren galerak % 10 inguru izaten dira monokristalinoetan, eta % 5 inguru polikristalinoetan.**
- **Zenbat irauten duten eta zer berme eskaintzen duen fabrikatzaileak.**
- **Zer errendimendu duen inbertsoreak.**



2

Silizio polikristalinozko panelak: Energia barreiatua hobeto hautematen dute (zuzenean iristen ez den argia).

Sistema hauek eragile klimatikoekiko erresistenteak dira, baina asko sufritzen dute dilatazio/uzkurdura termikoen ondorioz.

Fabrikatzaileek **% 90 inguruko ekoizpena** bermatzen dute 15 urtera, eta % 80-85 ingurukoa 25 urtera.

Behin sistemak bere bizitza erabilgarria gainditzen duenean, instalazio osoa aldatu beharko da.




Panel fotovoltaikoak

8

INBERTSIOA / DIRULAGUNTZAK €

- Gutxi gorabeherako kostua 1.500 €-koa da etxebizitza bakoitzeko (40 etxebizitzako bloke baterako kalkulatua).
- Kontsultatu laguntza publikoak www.eve.eus webguneko dirulaguntzen atalean.
- Horrelako instalazioek kenkariak dituzte udal-tasetan. Kontsultatu zure udalerriko hirigintza-sailean.





DEBABARRENAKO BIRGAITZE JASANGARRIRAKO PROGRAMA - 2020KO ABENDUA

Debegesa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Panel fotovoltaikoak

INFORMAZIO
GEHIAGO
HEMEN:

www.debegesa.eus